

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL
DESARROLLO

SAILAREN MEMORIA

MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

I. MEMORIA

Honako ildo hauek biltzen zituen 2017ko ekitaldian zehar garatu beharreko aurrekontu programaren helburuak:

- 2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuak (GIH) aplikatzeko ibilbide orria diseinatu eta garatzea, berdintasun printzipioa erantsita.
- Sentsibilizazio proiektuetarako dirulaguntzen deialdia moldatzea, Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2017-2020 aldirako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Ekintza Planari egokitzeko, genero ikuspegia erantsita.
- Lurraldean kokatutako erakundeekin batera hasitako parte hartze eta elkarriketa prozesua sendotu eta bizkortzea.
- Lankidetzaren arloko foru politikan esku hartzen duten agenteak, bitartekoak eta erakundeak berrikustea, genero ikuspegiaren sarrera irizpide eta betekizun gisa mantenduz.
- Garapenerako politiken koherentzia (GPK) handiagorantz aurrera egitea, berdintasun printzipioa erantsita.
- Sentsibilizazioaren, hezkuntzaren, lankidetzarako garapenaren eta ekintza humanitarioaren arloko proiektuei laguntzea eta genero ikuspegia erantsita.
- Lankidetzarako edota sentsibilizatorako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- Hegoaldeko erakundeekiko zuzeneko lankidetzak bideak ikertzea —genero ikuspegia duen lankidetzaren teknikoaren moduan—, Arabako Foru Aldundiko sail batekin edo batzuekin.

II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

I. MEMORIA

El objetivo del Programa Presupuestario a desarrollar a lo largo del ejercicio 2017 comprendía las siguientes líneas:

- Diseñar e implementar la hoja de ruta para la aplicación de la Nueva Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) incorporando el principio de igualdad.
- Adecuación de la convocatoria de subvenciones de proyectos de sensibilización al Plan de Acción de Educación para la Transformación Social de la Agencia Vasca de Cooperación 2017-2020, con perspectiva de género
- Consolidar y dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las organizaciones implantadas en el territorio.
- Revisión de los agentes, instrumentos y organizaciones implicadas en la política foral de cooperación, manteniendo la inclusión de la perspectiva de género como criterio y como requisito
- Avanzar hacia una mayor Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora, incorporando el principio de igualdad.
- Apoyo a proyectos de sensibilización, educación, cooperación al desarrollo y acción humanitaria, incorporando en los mismos la perspectiva de género.
- Seguimiento y evaluación de los proyectos de cooperación y/o sensibilización.
- Exploración de vías de cooperación directa –en forma de cooperación técnica y con perspectiva de género–, con instituciones del Sur, junto a algún o algunos departamentos de la Diputación Foral de Álava.

II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

2017ko ekitaldian zehar honako jarduketa hauek egin dira garapenerako lankidetzaren, sentsibilizazioaren eta ekintza humanitarioaren arloan:

• **2030 Agenda Berria eta Garapen Jasangarriaren Helburuak (GIH) aplikatzeko ibilbide orria diseinatu eta garatzea, berdintasun printzipioa erantsita.**

2015eko irailean Garapen Agenda berria onartu zen Nazio Batuen egoitzan. “*Gure mundua eraldatzen: garapen jasangarriko 2030 Agenda*” izenburuaren pean, estatu kideek tresna hori onartu zuten pobrezia aurka borrokatzeko, desberdintasunak gutxitzeko eta klima aldaketaren aurka eta planetaren babesaren alde borrokatzeko. Pertsonen, planetaren eta oparatasunaren aldeko ekintza plan gisa inoiz ez bezalako irismena eta garrantzia duen Agenda dugu emaitza, hurrengo urteetako erabakiak eta garatu beharreko ekintzak gidatuko dituen.

2030 Agenda inplementatzeko erantzukizuna nola administrazioek hala gizarte zibileko beste erakunde batzuek daukate, eta hori hala denez, inplementazio eraginkorra lortzeko, beharrezkoa da eginkizun horretan enagaiaturiko eragileak modu koordinatuan jardun daitezela, sinergiak sortu beharko dituztelarik agintaldian zehar.

Arabako Foru Aldundiak, Arabaren garapenaren arduraren administrazioa denez gero, jotzen du berari ere badagokiola Agendaren deia erantzutea, beste erakunde eta eragile batzuekin koordinatuta, logikoki. Hona hemen orain arte egindako urrats nagusien zerrenda:

- “Arabako Lurralde Historikoan 2030 Agenda abiaraztea” txostena prestatzea.
- Jendaurreko ekitaldi batean Agendarekiko atxikimendua eta konpromisoa agertzea, Foru Gobernu Kontseiluaren erabaki baten bidez berretsia.
- “17 helburu Arabako eta Mundurako” erakusketa, hizkuntza bietan egindako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

Durante el ejercicio 2017 las actuaciones realizadas en materia de cooperación al desarrollo, sensibilización y acción humanitaria han sido las siguientes:

• **Diseñar e implementar la hoja de ruta para la aplicación de la Nueva Agenda 2030 y los Objetivos de Desarrollo Sostenible (ODS) incorporando el principio de igualdad.**

En septiembre de 2015 se adoptó en la sede de Naciones Unidas la nueva Agenda de Desarrollo. Bajo el título “*Transformando nuestro mundo: Agenda 2030 para el desarrollo sostenible*”, los Estados miembro adoptaron este instrumento de lucha contra la pobreza, de disminución de las desigualdades y de lucha contra el cambio climático y por la protección del planeta. El resultado es una Agenda con un alcance y una importancia sin precedentes, como plan de acción en favor de las personas, el planeta y la prosperidad, que guiará las decisiones y acciones a implementar de los próximos años.

La implementación de la Agenda 2030 es una responsabilidad que recae tanto en las administraciones como en otras entidades de la sociedad civil, razón por la que para la consecución de una implementación efectiva se hace necesario que los diferentes agentes involucrados operen de forma coordinada, generando sinergias a lo largo de la legislatura.

La Diputación Foral de Álava, como administración responsable del desarrollo del territorio alavés se reconoce como uno de los sujetos concernidos por el llamamiento de la Agenda, en lógica coordinación con otras instituciones y actores. Así, los pasos más destacados dados hasta el momento se enumeran a continuación:

- Elaboración del informe “La implementación de la Agenda 2030 en el Territorio Histórico de Álava”.
- Celebración de un acto público de adhesión y compromiso con la Agenda, refrendado mediante Acuerdo del Consejo de Gobierno Foral.
- Exposición “17 objetivos para Álava y el Mundo”, junto con el video y folletos

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

zabalkunderako liburuxkekin eta bideoarekin batera. Zabalkunderako eta zabalkunde izaerako sentsibilizatorako materialak dira, herritar guztiei zuzenduta daude, bi hizkuntzetan eginda daude eta erraz sartzen dira begietatik. Leku publikoetan eta aire zabalean erakusteko daude taxututa, azkar ikusi ahal izateko moduan, bisitariak GIHak zer diren ikas dezaten eta Arabarentzat nahiz AFarentzat nolako garrantzia duten jabetu daitezten.

- 2030 Agendari buruzko hedapen eta prestakuntza saioa AFAko langileentzat.
- Beste erakunde maila batzuekiko koordinazioa.

- **Sentsibilizazio proiektuetarako dirulaguntzen deialdia moldatzea, Lankidetzaren Euskal Agentziaren 2017-2020 aldirako Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Ekintza Planari egokitzeko, genero ikuspegia erantsita.**

(H)ABIAN 2030 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren Euskal Estrategia da. Eusko Jaurlaritzak —Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren bidez— bultzatu eta koordinatutako prozesu parte hartzaile bat da eta zenbait erakunde publikok (Euskal Fondoa, foru aldundiak eta EAEko hiru hiriburu-udalak) nahiz zenbait GGKEk eta gizarte zibilaren beste erakunde batzuek parte hartzen dute.

Arabako Foru Aldundiak apustu egin du 2017. urtean onartu zen estrategia horren alde. Estrategia horrek berekin dakartza orientazio bat eta lortu beharreko aldaketa batzuk, eta hainbat jardulek egin ditzakete horretarako ekarpenak, zeinek bere dibertsitateak. Gida moduan planteatzen da, EAEko erakunde publikoek bat egin dezaten benetako gizarte eraldaketan lagunduko duten hezkuntza prozesuetarako ekarpena elkarrekin egiteko.

Estrategia horri aplikatuta, berrikusi eta egokitu egin dira sentsibilizatorako deialdiko inprimakiak, dirulaguntza jaso dezaketen programak eta balorazio irizpideak, strategiak beharrezkoak zituen egokitzapenak eginez.

- **Lurraldean kokatutako erakundeekin batera hasitako parte hartze eta elkarrikeria prozesua**

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

divulgativos bilingües. Se trata de materiales para la divulgación y sensibilización de carácter divulgativo y dirigida al público general, bilingüe y muy visual, y diseñada para su exhibición en espacio público al aire libre, que se pueda ver de una manera rápida y permita que los y las visitantes se vayan con una idea de lo que son los ODS y de la importancia que tienen para Álava y para la DFA.

- Sesión de difusión y formación sobre la Agenda 2030 entre personal de la DFA.
- Coordinación con otros niveles institucionales.

- **Adecuación de la convocatoria de subvenciones de proyectos de sensibilización al Plan de Acción de Educación para la Transformación Social de la Agencia Vasca de Cooperación 2017-2020, con perspectiva de género.**

(H)ABIAN 2030 es la Estrategia vasca de Educación para la Transformación Social (EpTS) elaborada en un proceso participativo impulsado y coordinado por el Gobierno Vasco -a través de la Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo- y que cuenta con la participación de diferentes instituciones públicas (Euskal Fondoa, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de las tres capitales de la CAPV) junto a diversas ONGDS y otras organizaciones de la sociedad civil.

La Diputación Foral de Álava apuesta por esta Estrategia, que se aprobó en el año 2017. Dicha estrategia conlleva una orientación y cambios a lograr, a los que pueden aportar diversos actores, desde sus diversidades y se plantea como una guía para que las instituciones públicas vascas se sumen a aportar conjuntamente a procesos educativos que contribuyan realmente a una transformación social.

En aplicación a esta Estrategia, se han revisado y adecuado los formularios, los programas subvencionables y los criterios de valoración de la convocatoria de sensibilización, realizando las adecuaciones pertinentes a la estrategia.

- **Consolidar y dinamizar el proceso de participación y diálogo emprendido con las**

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

sendotu eta bizkortzea.

Sendotu egin da Eskutik Mundura parte hartze prozesuaren barruan lurraldeko eragile sozialekin batera abian jarritako parte hartzeko gunea. Horren diseinuan mekanismo zehatzak garatu dira, aukera ematen dutenak modu erabilgarri eta eraginkorrean parte hartzeko elkartasunaren eta lankidetzaren arloko politika formulatzeko prozesuan. Lanerako bost tailer egin dira GGKE-ekin, jarduleak, tresnak edo jasangarritasun finantzarioa bezalako gaiak lehenesteko eta haixei ekiteko, 2017. urteko Plan Operatiboko gai nagusi moduan.

Gune horren kudeaketaren barruan, lantalde bat sortu da, xede zehatza duena: Arabako Foru Aldundiaren elkartasun eta lankidetzaren arloko politika kudeatzeko tresnak sortzearekin edota berrikustearekin zerikusia duten gaiak sakonean jorratzea.

- **Lankidetzaren arloko foru politikan esku hartzen duten agenteak, bitartekoak eta erakundeak berrikustea, genero ikuspegiaren sarrera irizpide eta betekizun gisa mantenduz.**

Garapenerako lankidetzaren arloan Arabako Foru Aldundiak finantzaturako proiektuetan genero ikuspegia nola txertatzen zen aztertzeko ebaluazioa egin zen 2016. urtean. Ebaluaziotik ateratako ondorioak kontuan izanik, berrikusi egin dira sensibilizazioaren eta garapenerako lankidetzaren arloko proiektuetarako laguntzen deialdietako inprimakiak. Horren emaitza gisa, lehiaren araubidean laguntzak emateko hiru deialdietako formularioak egokitu egin dira, proiektuetan genero ikuspegia txertatzeko irizpideak sendotzeko asmoz.

Beste alde batetik, 2017an zehar, agente berrien mapa prestatzeko lanak egin dira, 2030 Agenda berriaren eremuan. Horretarako, GGKE-ekin batera tailer batean parte hartu da, Eskutik Mundura prozesuaren barruan. Halaber, kuadrilletako teknikarien ekarpenak jaso dira, bai eta Zerbitzuko beste bi arloenak ere (Berdintasuna eta Kulturartekotasuna). Horren guztiaren emaitza da Arabako Foru Aldundiak baduela lurraldeko askotariko agenteen mapa, eta horiekin lan egin

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

organizaciones implantadas en el territorio.

Se ha consolidado el espacio de participación puesto en marcha con los agentes sociales del territorio dentro del proceso participativo Eskutik Mundura. En el diseño del mismo se han implementado los mecanismos concretos que permiten la participación útil y efectiva en el proceso de formulación de la política de solidaridad y cooperación. Se han mantenido cinco talleres de trabajo con las ONGD para priorizar y abordar los actores, instrumentos o sostenibilidad financiera como grandes temas del Plan Operativo Anual del año 2017.

Dentro de la gestión de este espacio, se ha creado un grupo de trabajo enfocado concretamente al tratamiento en profundidad de temas relacionados con la creación y/o revisión de los instrumentos en la gestión de la política de solidaridad y cooperación de la Diputación Foral de Álava.

- **Revisión de los agentes, instrumentos y organizaciones implicadas en la política foral de cooperación, manteniendo la inclusión de la perspectiva de género como criterio y como requisito.**

El año 2016, se realizó una evaluación sobre la incorporación de la perspectiva de género en los proyectos de cooperación al desarrollo financiados por la Diputación Foral de Álava. Teniendo en cuenta las conclusiones extraídas de la misma, se han revisado los formularios de las convocatorias de ayudas a proyectos de sensibilización y cooperación para el desarrollo. Como resultado de ello, los formularios de las tres convocatorias de ayudas en concurrencia competitiva, han sido adecuados con el fin de reforzar los criterios de incorporación de la perspectiva de género en los proyectos.

Por otro lado, a lo largo del año 2017, se ha trabajado en la realización de un mapa de nuevos agentes, en el ámbito de la nueva Agenda 2030. Para ello, se ha trabajado en un taller con las ONGD dentro del proceso Eskutik Mundura. Asimismo, se ha contado con los aportes de personal técnico de las cuadrillas, así como de las otras dos áreas del Servicio, Igualdad e Interculturalidad. Como resultado, la Diputación Foral de Álava cuenta con un mapa de actores diversos en el territorio con los que trabajar a

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

dezakeela lankidetzan jarduteko modu berri bat planteatzeko garaian.

Tresnak sortzeari edota berrikusteari buruzko lantaldean hartutako erabakien ildotik, garapenerako lankidetzarako bi deialdi berri abiarazi dira. Horietako bat unean unekoa da, eta bereziki pentsatuta dago elkartasunaren eta lankidetzaren arloko politikara agente berriak erakartzeko. Bestea urte anitzekoa da, eta xede dituen erakundeek ibilbide luzeagoa egin dute, eta irismen zabalagoko proiektuak dituzte. Zuzkidura ekonomikoa handiagoa da, eta iraupena, 36 hilabetekoa.

- **Garapenerako politiken koherentzia (GPK) handiagorantz aurrera egitea, berdintasun printzipioa erantsita.**

Arabako Lurralde Historikoko 2018-2030 aldirako Garapen Jasangarrirako II. Plana prestatzen ari zela, bilera bat egin da Arabako kuadrilletako teknikari eta politikariek, 2030 Agenda aurkezteko.

Arabako Foru Aldundiaren zerbitzu zuzendaritzekin eta burutzekin lan bilera bat izan da, Garapenaren aldeko Politiken Koherentziaren (GPK) gairi heltzeko eta lurraldean Nazio Batuen agenda berria aplikatzeko.

Azkenik, tailer bat egin da Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, GPKan aurrera egitea helburu hartuta. Halaber, lan eta informazio saioak egin dira, Arabako Foru Aldundiaren barruan, Kultura eta Ekonomia Sustapen sailekin eta Katastro Zerbitzuarekin.

Egindako lan saioetan catering-aren arduraren izan duten enpresek bidezko merkataritzako produktuak dituzte euren zerbitzuen artean.

- **Sentsibilizazioaren, hezkuntzaren, lankidetzarako garapenaren eta ekintza humanitarioaren arloko proiektuei laguntzea eta genero ikuspegia erantsita.**

Ildo horrek barruan hartzen ditu, alde batetik, irabazi asmorik gabeko erakundeentzako laguntzak, garatzen ari diren herrialdeetan garapenerako

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

la hora de plantear una nueva forma de hacer cooperación.

Fruto de los acuerdos tomados en el grupo de trabajo sobre la creación y/o revisión de instrumentos, se han puesto en marcha dos nuevas convocatorias de cooperación al desarrollo. Una de ellas, de carácter puntual, y pensada especialmente para incorporar a nuevos agentes a la política de solidaridad y cooperación. La otra, de carácter plurianual, destinada a organizaciones con mayor trayectoria, proyectos de mayor alcance, con más alta dotación económica y con una duración de 36 meses.

- **Avanzar hacia una mayor Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) como un proceso de mejora, incorporando el principio de igualdad.**

En el marco de la elaboración del II Plan de Desarrollo Sostenible del THA 2018-2030, se ha mantenido una sesión con personal técnico y político de las cuadrillas alavesas, con el fin de presentar la Agenda 2030.

Se ha mantenido una sesión de trabajo con direcciones y jefaturas de servicio de la Diputación Foral de Álava para abordar la Coherencia de Políticas para el Desarrollo (CPD) y la aplicación en el territorio de la nueva Agenda de las NNUU.

Por último, se ha llevado a cabo un taller con el servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad, con el objetivo de avanzar en la CPD. Igualmente, se han mantenido sesiones de trabajo e información, dentro de la propia Diputación Foral de Álava, con el departamento de Cultura, Promoción Económica y el Servicio de Catastro.

En las sesiones de trabajo realizadas, se ha contado con catering ofrecido por empresas que incorporan entre sus servicios, productos de comercio justo.

- **Apoyo a proyectos de sensibilización, educación, cooperación al desarrollo y acción humanitaria, incorporando en los mismos la perspectiva de género.**

Esta línea se refiere, por un lado, a las ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la financiación de proyectos de cooperación al

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA

Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

lankidetzaren arloko proiektuak finantzatzea eta Arabako Lurralde Historikoko irabazi asmorik gabeko erakundeek sentsibilizazio proiektuak finantzatzea helburu dutenak.

Halaber, barruan hartzen du Larrialdietarako Arabako Funtza (LAF), hau da, garatzen ari diren herrialdeei eragiten dieten larrialdi egoeretan, esku hartzeko gaitasuna duten erakundeek laguntza ekonomiko azkarra emanez, laguntza eskaintzea ahalbidetzen duen mekanismo bat.

Finantzatzen diren proiektu guztietan baldintza izan da genero ikuspegia sartzea, garapenerako edozein ekimen, generoari dagokionez, neutrala ez delakoan eta genero desberdintasunek garapenari lotutako arazo askoren, hala nola txirotasunaren feminizazioaren, emakumeen aurkako egiturazko indarkeriaren, haien giza eskubideen urraketaren, eta abarren sorburua direlakoan.

Garapenerako lankidetzaren arloko urte anitzeko deialdiari dagokionez, 2017. urtean 10 proiektu onartu dira. Proiektu horietako ekintzak honako herrialde hauetan gauzatuko dira: Kolonbian, Nikaraguan, Perun, Boli Kostan, Burundin, Guatemalan, Hondurasen eta El Salvadorren.

Bestalde, garapenerako lankidetzarako uanean uneko deialdian bost proiektu onartu dira, herrialde hauetan garatu beharrekoak: Nigerren, Kongoko Errepublika Demokratikoan, Ginean eta Nikaraguan.

Irabazteko asmorik gabeko entitateei gizarte nazioarteko elkartasunaren alde sentikortzeko genero ikuspegidun ekintzak egiteko ematen zaizkien laguntzen deialdiak elkartasunezko konpromiso jarrerak sustatzen ditu arabarren artean.

Deialdi horretan aurkeztutako hamabi proiektuak onartu dira, gauzatutako aurrekontuak izan duen % 14ko gehikuntzari esker. Proiektuek hainbat alderdi biltzen dituzte, hala nola 2030 Agendaren eta 17 GIHen aplikazioa, Afrikako egoera, kontsumo kritikoa eta arduratsua edo Kolonbiako bake egoera.

2017. urtean zehar, krisi humanitario larriek jotako zazpi herrialdetan LAFen bitartez zortzi esku hartze humanitario egitea onartu da. Hauek izan dira esku

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL

Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

desarrollo en países en vías de desarrollo y de sensibilización, por entidades sin ánimo de lucro del Territorio Histórico de Álava.

Así mismo, incluye el Fondo Alavés de Emergencia (FAE), como un mecanismo que permite brindar ayuda en situaciones de emergencia que afecten a países en desarrollo, mediante el ágil apoyo económico a entidades con capacidad de intervención.

En todos los proyectos financiados se considera como requisito la incorporación de la perspectiva de género, partiendo de que cualquier iniciativa de desarrollo no es neutral en términos de género y de que las desigualdades de género son origen de muchas de las problemáticas ligadas al desarrollo, tales como la feminización de la pobreza, la violencia estructural contra las mujeres o la violación de sus derechos humanos.

En lo que se refiere a la convocatoria de Cooperación al Desarrollo de carácter plurianual, en el año 2017 se han aprobado 10 proyectos. Las acciones de estos proyectos se ejecutarán en Colombia, Nicaragua, Perú, Costa de Marfil, Burundi, Guatemala, Honduras y El Salvador.

Por su parte, en la convocatoria de Cooperación al Desarrollo de carácter puntual, se han aprobado cinco proyectos a desarrollar en Níger, República Democrática del Congo, Guinea, Nicaragua.

La convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de sensibilización social a favor de la solidaridad internacional con perspectiva de género promueve actitudes de compromiso solidario entre la ciudadanía alavesa.

En el marco de esta convocatoria, se han aprobado los doce proyectos presentados, gracias al incremento presupuestario ejecutado del 14%, proyectos que abarcan aspectos como la aplicación de la Agenda 2030 y los 17 ODS, la situación en el continente africano, el consumo crítico y responsable o la situación de paz en Colombia,

A lo largo del año 2017, se han aprobado ocho intervenciones humanitarias en siete países afectados

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

hartutako herrialdeak: Hego Sudan, Kolonbia, Etiopia, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Sierra Leona, Bangladesh eta Haití.

Zuzeneko lankidetzaren haxe da: Arabako Foru Aldundiko sailek edo erakundeek garapenerako lankidetzaren esparruan sustatzen dituzten ekintzak.

2017an, lan ildo berari eutsiz, mantendu egin dira hainbat esku hartze: Gambian, emakumeen genitalen mutilazioaren prebentzioan aurrera egiteko; Brasilen, Amazonia basoberritzearen aldeko ekintzekin; Indian, egoera behartsuenean dauden neskatoen hezkuntza sustatzeko; EAEn, lankidetzaren proiektuak bultzatzeko UPV/EHUrekin batera; eta Togon, neskato-mutikoen trafikoaren eta haienganako sexu abusuen kontrako borrokan.

Bestalde, hitzarmenei dagokienez, luzatu egin dira bost hitzarmen, hain zuzen ere honako erakunde hauekin urtero sinatzen direnak: Euskadiko GGKE-en Koordinakundea, AFANIS - Ume Sahararrak Hartzeko Familien Elkarte, Euskal Fondoa, Familia Santua Elkarte eta Arabako SEADen Lagunen Elkarte.

Hitzarmen horiek xedetzat dute GGKEk Arabako Ordezkaritza mantentzea eta haren funtzionamendua hobetzea, Saharako umei harrera egitea, Guatemalako landa komunitateen integrazioaren bitartez pobrezia murrizteko borrokatzea, Txernobyngo umei harrera egitea eta Tindufeko (Aljeria) kanpamentuetako errefuxiatu sahararren ongizatea, hurrenez hurren.

• Lankidetzarako edota sentsibilizatorako proiektuen jarraipena eta ebaluazioa egitea.

Irabazi asmorik gabeko erakunde bidez garapen bideko herrialdeetan garapenerako lankidetzaren proiektuak finantzatzeko 2017ko deialdia onartzen duen deialdian jasotzen denez, diruz lagundutako erakundeak, proiektua hasi eta sei hilabete igaro ondoren, bilera bat egin beharko du Berdintasun, Lankidetzaren eta Kulturartekotasun Zerbitzuarekin, haren jarraipena egiteko. Ildo horretatik, dagokien

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

por graves crisis humanitaria a través del FAE. Los países en los que se ha intervenido han sido Sudán del Sur, Colombia, Etiopía, República Democrática del Congo, Sierra Leona, Bangladesh y Haití.

La cooperación directa se entiende como aquellas acciones de Cooperación para el Desarrollo, promovidas por alguno o algunos de los distintos departamentos u organismos de la Diputación Foral de Álava.

El año 2017 se ha continuado el trabajo en esta línea de manera que se han mantenido las intervenciones en Gambia, en el avance del trabajo de la lucha por la prevención de la Mutilación Genital Femenina; Brasil, con acciones que apoyan la reforestación de la Amazonía; India, apoyando la educación de las niñas que se encuentran en situaciones más desfavorecidas; CAV, para impulsar proyectos de cooperación junto a la UPV y Togo, en la lucha contra el abuso sexual y la trata de niños y niñas.

Por su parte, en lo que a Convenios se refiere, se han prorrogado los cinco firmados anualmente con las siguientes entidades: Coordinadora de ONGDs de Euskadi, Asociación de familias de acogida de niños y niñas saharais AFANIS, Euskal Fondoa, Asociación Sagrada Familia y la Asociación de Amigas y Amigos de la RASD.

Dichos convenios tienen por objeto el mantenimiento y la mejora del funcionamiento de la Delegación de Álava de la CONGD, la acogida de niñas y niños saharais, la lucha por la reducción de la pobreza a través de la integración de comunidades rurales en Guatemala, la acogida de niñas y niños de Chernobyl y el bienestar de la población saharai refugiada en los campamentos de Tinduf (Argelia), respectivamente.

• Seguimiento y evaluación de los proyectos de cooperación y/o sensibilización.

Como se recoge en la convocatoria que aprueba la convocatoria del año 2017 para la financiación de proyectos de cooperación al desarrollo en países en vías de desarrollo a través de entidades sin ánimo de lucro, la entidad subvencionada, transcurridos seis meses del inicio del proyecto, deberá mantener una reunión con el Servicio de Igualdad, Cooperación e Interculturalidad con el fin de efectuar el

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Saila: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

segimendua egin zaie deialdi horren bidez diruz lagundutako proiektuak ezartzen ari diren 12 erakundeei.

Irabazi asmorik gabeko erakundeei laguntzak ematen zaizkie, genero ikuspegia aintzat hartuta gizartea nazioarteko elkartasunaren alde sentikortzea helburu duten ekintzetarako. Bada, laguntza horien deialdiaren barruan, jarraipenerako bilerak egiten dira erakunde onuradunekin, proiektuak gauzatu ahala, eta garatzen diren jardueren arabera.

Larrialdietarako Arabako Funttsaren (LAF) esparruan gauzatzen diren proiektuen kasuan, hitzarmen arautzailean bertan aurreikusita dagoen batzorde teknikoak berrikusten ditu aurkezten diren txostenak. Batzorde horretako kideak Arabako Foru Aldundiko eta Gasteizko Udaleko teknikariak dira.

- **Hegoaldeko erakundeekiko zuzeneko lankidetzak bideak ikertzea —genero ikuspegia duen lankidetzaren teknikoaren moduan—, Arabako Foru Aldundiko sail batekin edo batzuekin.**

2016. urtean, bake prozesuko akordioak zirela eta, bisita bat egin zen Kolonbiara. Bisita horren helburua izan zen AFarentzat interesa duten Kolonbiako erakunde homologoak identifikatzea, eurekin elkartasunezko harremanak izateko.

Bisitaren emaitza gisa, Aldundiak eta Tolimako Gobernazioak elkarlanean jardun ahal izateko arlo egoki bat identifikatu zen, katastroaren gaia, hain zuzen.

Hala, 2017. urtean zehar, Aldundiko Katastro Zerbitzuarekin lan saio batzuk egin ziren, detektatutako eskariei erantzuna emateko gaitasuna aztertu eta baloratzeko. Hala ere, azkenean ezin izan zen inolako lankidetzarik sortu.

Bestalde, hasiera eman zaio Arabako Foru Aldundiko berdintasun arloarekin lan ildo komun batean lankidetzaren jarduteari LAIA Eskola proiektuaren inguruan, bere jarduketa ildoen artean lan koordinatua garatzeko lankidetzaren eta berdintasunaren arloen artean, lankidetzaren ekintzak

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

seguimiento del mismo. En este sentido, se ha realizado el seguimiento correspondiente con las 12 entidades que están implementando sus proyectos subvencionados a través de esta convocatoria.

En el marco de la convocatoria de ayudas dirigidas a entidades sin ánimo de lucro para la ejecución de acciones de sensibilización social a favor de la solidaridad internacional con perspectiva de género se mantienen reuniones de seguimiento con las entidades beneficiarias a medida que los proyectos se ejecutan y en función de las actividades que se implementan.

En el caso de los proyectos ejecutados en el marco del Fondo Alavés de Emergencias (FAE), los informes presentados son revisados por la Comisión Técnica prevista en el propio Convenio regulador y que abarca tanto al personal técnico de la Diputación Foral de Álava como del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.

- **Exploración de vías de cooperación directa –en forma de cooperación técnica y con perspectiva de género–, con instituciones del Sur, junto a algún o algunos departamentos de la Diputación Foral de Álava.**

En el año 2016, en el contexto de los acuerdos del proceso de paz, se realizó una visita a Colombia. El fin de esta visita era identificar instituciones homólogas colombianas de interés para la DFA con las que establecer relaciones de solidaridad.

Resultado de la visita, se identificó el tema del catastro como un área de posible colaboración técnica entre la Diputación y la Gobernación de Tolima.

Así, a lo largo del año 2017, se mantuvieron varias sesiones de trabajo con el Servicio de Catastro de la Diputación, con el fin de estudiar y valorar la capacidad de dar respuesta a las demandas detectadas, aunque finalmente, no se pudo establecer ningún tipo de colaboración.

Igualmente, con el área de igualdad de la Diputación Foral de Álava, se ha comenzado a colaborar en una línea de trabajo común en torno al proyecto de LAIA Eskola, con el fin de desarrollar entre sus líneas de actuación un trabajo coordinado entre las áreas de

2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

Sala: 02 DIPUTATU NAGUSIA
Programa: 93 GARAPENERAKO LANKIDETZA

babesten ari diren herrialdeetako eta lurraldeko zenbait erakunde ere inplikatur.

LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

Departamento: 02 DIPUTADO GENERAL
Programa: 93 COOPERACIÓN AL DESARROLLO

cooperación e igualdad que implique además a diferentes organizaciones del territorio y de países en los que se están apoyando acciones de cooperación.